



## Eskualdeko produktuak ere, Ordiziako Azoka Berezian lehian

**SARIAK** ▶ Tolosaldeko baserritarrek eta abeltzainek maila ona erakutsi eta sarirekin itzuli dira etxera ▶ 2-3



Fruitu eta barazkiak (argazkian), lumagorriak eta pirenaika arrazako ganadua izan zen, besteak beste. N. L.



IMANOL GARCIA

## Festa giroan murgilduta daude herritarrak

**ZIZURKIL** ▶ Hizkilipai, Txoritxoak eta Beti Alai gaztetxoaren koadrilek botatako txupinazoak eman zien hasiera festei, atzo ▶ 4

**BEDAIO** ▶

### Suziria, lau eguneko jaiei hasiera emateko

Gaur, hamaiketakoak, pilota eta musika ▶ 5

**IKAZTEGIETA** ▶

### Herriko frontoi zaharra ari dira botatzen egunotan

Datorren astean amaituko dute lehen fasea; indusketari ekingo diote gero ▶ 5



J. GOIKOETXEA

**LEITZA** ▶

### Aurrera futbol talde eraberritua, lanean tinko

Igandean ekingo diote Ligari, etxean ▶ 7

ORDIZIAKO AZOKA BEREZIA ▶

# Produktu onenekin lehian

Eskualdeko baserritar eta abeltzain asko izan ziren Ordizian, Euskal Jaien harira atzo egindako azoka berezian; XXXII. Gazta Txapelketan, 6.000 eurotan saldu zen Elgoibarko Jesus Ansolaren gazta erdia



Jende ugari izan zen atzo Ordiziako Euskal Jaien baitan egiten duten azoka berezia ikusten; eskualdeko postu batzuk ziren tartean. NEREA LIZARTZA

JOSEBA ZULAIKA ▶ ABELTZAINA

## «Aurreraka beharrean, atzerantz doa baserria»

**I. Etxebeste** ▶ Lehen aldia zuen Joseba Zulaika tolosarrak lehiaketa horretan parte hartzen zuena. Antolatzaileen deia jaso zuen bertara agertzeko, eta baiezkoa eman zien. 2-3urte bitarteko behi bakarrarekin joan zen atzo txapelketara. Badaion, «esnekoekin ibiltzen nintzen lehen, eta duela urtebete hasi naiz pirenaika arrazakoekin lanean». Saririk gabe itzuli behar izan du Ordiziatik, baina hurrengoetarako eskarmentu pixka batekin.  
**Zer hartzen da kontuan lehiaketa honetan?**  
Buruaren forma, gorputzaren ezaugarriak, bizkarretik nola

ikusten den, hazteko zer garapen duen... gauza asko dira.  
**Eta nola lortzen da hori dena?**  
Ganadua forma onean jartzeko urteak behar izaten dira. Hazi ona eta zezen onak jarriz lortu daiteke ganadua maila altura jartzea, baina ez da, inolaz ere, erraza.  
**Nola ikusten duzu zure aberea?**  
Larre hutsean ibili dugu ganadua, baina ikusten dut hemengo askori barruan ere eman diotela jaten. Oso gaztea da aberea, bere kategorian ere gazteena. Ez nuen txapelketan parte hartzeko asmorik, baina

etorri egin naiz hona, eta saririk lortu ez arren, zer edo zer ikasi dugu.  
**Maila handia izan al da lehiaketan?**  
Urtero izaten da, baina esango nuke aurten estua ere izan dela kasu batzuetan.  
**Aurrerantzean segituko al duzu lehiaketatan parte hartzen?**  
Baserritik bizitu naiz orain arte, baina ikusiko dugu noiz arte irauten duen egoera horrek. Izan ere, laguntza gutxi ematen du Eusko Jauriaritzak gaur egun gazteek baserrian lan egiteko. Aurreraka beharrean, atzerantz doa baserria. ◀



N. LATABURU

N. LATABURU - N. LIZARTZA

12.100 euro ordaindu zuten izaz irabazlearengatik, eta 6.000 euro izan dira aurtengoan Ordiziako Artzainek Eskuz Egindako XXXII. Latxa Ardien Gazta Txapelketan Olaberriako Hotel Castilloren jabe Juan Jose Castillo Jesus Ansola artzain elgoibartarrak egindako gazta erdiarengatik ordaindu duena. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ahalduen Nagusi Joxe Joan Gonzalez Txabarriren eskutik jaso zuen Elgoibarkoak saria —hark irabazi berri du Legazpiako Txapelketa ere—. Bigarren saria Idiazabalgo Aranburu elkarteari eman zioten epaimahaiko kideek eta Arabako Gorgoa herriko Felix Etxezarretari hirugarrena. Guztira 60 gazta aurkeztu zituzten lehiaketara: horietatik 15 gehetuak eta beste 45 gehetu gabeak.

Aurpegi ezagun ugari zeuden atzo epaimahaian: sukaldarien artean, Pedro Subijana, Karlos Argiñano, Juan Mari Arzak eta Martin Berasategi, aktoreen artean Lola Herrera eta Alfredo Landa, eta baita ere politikoa, kazetariak... Gazta Txapelketan epaile lanetan aritzeaz gain, geroko enkantean hartu zuten parte.

Ez zen hori atzokoan, ordea, Ordiziako txapelketa bakarra izan. Fruitu eta barazki lehiaketa, pirenaika txapelketa, lumagorrien lehiaketa, perretxikoen... azoka gune handi bilakatu zen herri erdialdea, eta txapelketa horietako batzuetan eskualdeko ordezkariak hartu zuten parte. Horren adibide dira Anoetako Mendigubel baserriko Jesus Artola eta Aldabako Aldaba-Txiki baserriko Asun Aristi; barazki lehiaketan eta lumagorrien txapelketan parte hartu zuten, hurrenez hurren, eta lehen saria jaso zuen azken horrek marradun lumagorrien atalean. Txapelketa horretan, sari berezian arteko bigarrena eman zioten Albizturko Maria Luisa Zubiarrairi.

Asteazkeneko-asteazkeneko Ordiziako plazan postua jartzen dutenekin aparteko lehiaketa egin zuten, bestalde, eta banatutako lau sarietatik hiru eskuratu zituzten eskualdekoek: Gabiriako Anttoni Murciondok irabazi zuen lehiaketa, eta haren atzetik sailkatu ziren Baliarraingo Maria Jesus Mujika, Ibarako Montes bizitegia eta Baliarraingo Edurne Jauregi.

**SAILKAPENA ▶**

**XXXII. LATXA ARDIEN  
GAZTA TXAPELKETA**

1. Jesus Ansoa (Elgoibar)
2. Aranburu elkarte (Idiazabal)
3. Felix Etxezarreta (Gorgoa, Araba)
4. Jose Ignacio Gonzalez de Heredia (Larrea, Araba)
5. Audika anaiak (Gereñu, Araba)

**LUMAGORRIEN LEHIAKETA  
Sari orokorrak.**

- Beltza**  
Angela Otamendi (Ordizia)
- Gorria**  
Maria Luisa Zubiarrain (Albiztur)
- Lepasoila**  
Xabier Lasa (Olaberria)
- Marraduna**  
Asun Aristi (Aldaba Txiki)
- Zilarra**  
Patxi Larrarte (Zarautz)
- Sari bereziak.**
- Sailik onena**  
Patxi Larrarte (Zarautz)
- Sailetan bigarrena**  
Maria Luisa Zubiarrain (Albiztur)
- Goierriko sailik onena**  
Xabier Lasa (Olaberria)

**FRUITU ETA BARAZKI  
TXAPELKETA**

- Fruituak.**
1. Maddi Iradi (Hernani)
  2. Ramon Aseginolaza (Idiazabal)
  3. Jose Manuel Zabalegi (Martutene)
- Barazkiak.**
1. Jose Manuel Zabalegi (Martutene)
  2. Tomas Larrañaga (Antzuola)
  3. Peio Rubio (Elgoibar)

**PIRENAIKA ARRAZAKO  
GANADU TXAPELKETA**

- 12-18 hilabeteko bigantxak.**
1. Prontxio Urkia (Idiazabal)
  2. Antonio Agirrebarrena (Irun)
- 18-24 hilabeteko bigantxak.**
1. Antonio Agirrebarrena (Irun)
  2. Prontxio Urkia (Idiazabal)
- 24-30 hilabeteko bigantxak.**
1. Antonio Agirrebarrena (Irun)
  2. Lorea Katarain (Idiazabal)
- 2,5-3,5 urte arteko behiak.**
1. Lorea Katarain (Idiazabal)
  2. Prontxio Urkia (Idiazabal)
- 3,5-5 urte arteko behiak.**
1. Lorea Katarain (Idiazabal)
  2. Antonio Agirrebarrena (Irun)
- 5-8 urte arteko behiak.**
1. Lorea Katarain (Idiazabal)
  2. Juan Mariora (Bergara)



Pirenaika Txapelketan parte hartu zuten abereetako batzuk. N. LATABURU



Ordiziako XXXII. Gazta Lehiaketaren lehen hiru sailkatuak. N. LATABURU



Postu guztiak jendez gainezka izan ziren atzokoan Ordizian. N. LATABURU

**iragarki laburrak ▶**

**SALGAI**  
**Autoa.** Citroen Berlingo autoa salgai. 1998koa. Diesela. Egoera onean. Deitu telefono zenbaki honetara: 650 324 506.

**GALDUTAKOAK**  
**Zakurra.** Lehengo igandean ardi-zakurra galdu zen Oresako Basabe erreka ondoan. Ile txurikoa. Galdu duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 943 68 22 14.

**LANA**  
**Muntatzailea.** Arotzeria metalikoko muntatzaile batek ikastuna behar du. Interesa dutenek dei dezatela honako telefono zenbakira: 665 70 09 79.

**Sukaldaria.** Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Interesa duenak dei dezala honako telefono zenbakira: 943 69 19 33.

**EUSKARA ▶**

**Kurtso berriari harrera Aitzol udal euskaltegian**

Aitzol udal euskaltegian 2005-2006 ikasturtearen aurkezpena egingo dute datorren hilaren 15ean. Hitzordua eguerdiko hamabietan izango da euskaltegiak Tolosan duen egoitzan. Kurtso berrirako izena eman duten guztiei luzatzen diete deialdia euskaltegiko zuzendari-zakoek.

**EKONOMIA ▶**

**Correosen lan poltsetarako deialdia**

Correosek Tolosan eta Goierri lan poltsetarako deialdia egin du hilaren 23a bitartean. Eskaintzen dira behin behineko banatzaile lanpostuak, kontratu finkoak etenaldiekin eta kontratu finkoak banatzaile lanean edo enpresak eskaintzen dituen beste hainbat lanpostutan. Eskaera egiten dutenen artean azterketa egingo dute. Informazio gehiago nahi izanez gero, Correosen web orria kontsultatu edo Correosen ofizinara joan daiteke.

**KULTURA ▶**

**Santa Mariako kapera Izaskunen ariko da**

Izaskungo Ama Birjinaren eguna dela eta, hilaren 11n 11:00etan Santa Mariako kapera emanaldia eskainiko du Izaskungo ermitan. Antolatzaileek abesbatzako eta orkestrako partaideei zein herritarrei bertaratzeko gonbita egin nahi diete.

**KIROLAK ▶**

**Atletismo eskola martxan da berriz ere**

Udako etenaldiaren ostean, Tolosa CF-ko atletismo eskola berriz ere atek irekiko ditu. Hilaren 12an infatilk hasiko dira, hilaren 28an alebinak eta benjaminak eta urrebenjaminak, berriz, urriaren 2an. Informazio gehiago nahi duenak Tolosa CF-ko bulegoetara —943 67 17 49 zenbakira— dei dezake.

**KIROLAK ▶**

**Hegats igeriketa proba egingo da kiroldegian**

Datorren asteartean, hilaren 13a, 18:30ean, hegats igeriketa proba egingo da Tolosako kiroldegi berrian. Parte hartu dezakete 1992 urtetik atera jaiotakoek. Dudarik izanez gero, 667 63 17 42 telefono zenbakira deitu 09:00-etatik 13:00etara.



Koldo Mitxelena Kulturunea  
Urdaneta kalea 9 • 20006 DONOSTIA  
Tel.: 943 11 28 93  
programazioa@gipuzkoa.net  
www.gipuzkoa.net/kultura

## ERAKUSKETAK



*Iraulza ostein  
Iringo artista garaikideak*

### Erakustaretoan

Irailaren 21etik urriaren 1era

*Ramon Zuriarrain*



## Ganbaran

Uztailak 20tik irailaren 24era



**ORDUTEGIA**  
asteartetik larunbatera:  
10:30-14:00 / 16:00-20:30  
astelehen, igande eta jaiagunetan itxita

**TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

**Eztabaida.** Ikasturte hasiera gogorra izaten al da? Oporretatik lanera edo ikastetxera itzultzea aldapa gora egiten zaizu edo ez da hain nekeza? Galdera horri erantzuteko aukera ematen dizu HITZAK bere webgunean. Sartu eta eman zure iritzia zeuk ere!

ZIZURKIL-ALKIZA ▶ JAIAK

# Festa giroan sartu da Zizurkil

Atzo arratsaldeko haurren txupinazoa izan zen Arantzazuko Amaren festetako lehen ekitaldia

IMANOL GARCIA

Zizurkilgo Arantzazuko Amaren festei atzo eman zitzaizen hasiera eta igandera arte luzatuko dira. Bi txupinazo bota zituzten atzokoan. Haurrek arratsaldean bota zuten, eta txupinazo nagusia, Hizkilipai blusa koadrila berriaren eskutik, koadrilen afariaren aurretik.

Haurren txupinazoa zazpi eta zortzi urte bitarteko gaztetxoek osatutako hiru blusa koadrilek bota zuten: Hizkilipai, Txoritxoak eta Beti Alai. Zertxobait urduri zeuden ekitaldiaren aurretik, baina ederki abestu zuten beraiek prestatutako bertsoa. Ondo pasatzeko go-goa erakutsi zuten, eta Zizurkil guztiari festak ongi igarotzeko opa zioten.

Haurrek jarraitu zuten protagonista izaten arratsaldean zehar. Izan ere, Pirritx eta Porrotx pailazoan ikuskizunak haur mordo eta, noski, beraiekin gurusoak ere, erakarri zituzten Joxe Arregi plazara. Adi-adi jarraitu zuten guztiek pailazoan emanaldia eta parre egiteaz gain, ederki abestu zituzten Pirritx, Porrotx eta konpainiarekin beren abestiak.

Arratsaldeko beste ekitaldia futbol partida izan zen. Aspaldi egiten zituzten auzoen arteko futbol partidak berreskuratu nahi izan dituzte. Auzo guztietatik ez zen lortu taldea osatzea eta horregatik, azkenean, Zizurkil Goikoek eta Behekoek beren indarrak neurtu zituzten atzokoan giro ederrean.

## Alkizan gaur hasiko dira

Alkizan gaur ekingo diote festei. Aipatzekoak dira jubilatuek egin behar duten bazkaria Otsamendi jatetxean, Alkizako web orri berriaren aurkezpena eta gaueko bertso jaialdi aparta, punta-puntako sei bertsolariarekin.



Haurrak jaien hasierako suziria pizten atzo arratsaldean. AINHOA LARREA



Pirritx eta Porrotxen emanaldia atzo Joxe Arregi plazan. I. GARCIA



Zizurkil Goikoek eta Behekoek atzo jokaturako partidaren une bat. i.e.

## EGITARAUA ▶

### ZIZURKIL

#### Gaur

**11:00.** Haurrentzat parkea Joxe Arregi Plazan.  
**13:30.** Marrazki lehiaketako sari banaketa. Lehiaketan parte hartu duten marrazkiak ikusgai egongo dira goizean zehar Joxe Arregi Plazan.  
**17:00.** Buruhandiak.  
**18:00.** Bike Trial erakusketa Aurrera Plazan Iker Lezeta eta Alberto Gomezekin, munduko txapeldunak.  
**20:10.** Raices Norteñas, jota nafarrak Joxe Arregi Plazan.  
**24:00.** Kontzertua: Sei Urte eta Zea Mays.

### ALKIZA

#### Gaur

**12:00.** Meza nagusia festei hasiera emanez.  
**14:00.** Jubilatuen bazkaria Otsamendi jatetxean.  
**16:00.** Haur jolasak.  
**21:00.** Barrikotea.  
**22:00.** Alkizako web orriaren inaugurazioa frontoian.  
**23:00.** Bertsolari jaialdia: Sebastian Lizaso, Angel Mari Peñagarikano, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Jesus Mari Iruzu eta Sustrai Colina. Jaialdiaren ondoren, Epelde eta Larrañagarekin erromeria.

## AURRERA



### taberna

Tel.: 943 69 37 32 • ZIZURKIL



ERNIOBIDEA, 7 ZIZURKIL Tel.: 943 69 62 57



Tel.: 943 69 44 90  
Elbarrena auzoa (Pasus) • ZIZURKIL

ZIZURKILGO JAIETAN ERE ZUEN ARTEAN!  
ONDO PASA JAIK !



Erniobe, 5 • Zizurkil

Joxe Arregi plaza • Zizurkil  
Tel.: 943 69 34 23

**Teodosio**  
taberna

## IKAZTEGIETA ▶ HIRIGINTZA



Frontoi zaharraren burnizko hormigoizko esturkturak zutik zirauten oraindik atzo goizean. JULEN GOIKOETXEA

# Frontoi zaharra botatzen hasi dira aste honetan

Obren lehen fasea hurrengo astearen bukaeran amaituta izatea espero du lanen ardura daraman enpresak

JULEN GOIKOETXEA

Ikaztegieta frontoi zaharra botatzeko obrak hasi dira aste honetan. Urteetan ikaztegiatar ugarien pilota saioen lekuko eta, azkenaldian, kontzertu askoren eszenategi izan den frontoi historia bilakatuko da egun batzuk barru. Duela egun gutxi hasi diren lanak hainbat fasetan banatu dira, eta lehen fasea datorren astearen bukaerarako amaituta egotea espe-

ro dutela adierazi dute obra burutzen ari den enpresatik. Erasketa lanen lehen zati hau teknika berri eta txukun bat erabiliz egitea aurreikusit du Udalak.

Lehenik, frontoiaren teilatu gisa zegoen uralita kendu zuten. Horrela, ondoren ekarriko duten makinak errazago lan egin dezan, pilotalekuaren burnizko eta hormigoizko esturktura soilik utzi dute. Arduradunek HITZARI adierazi diote-

nez, makina hori datorren astean ekarriko dute, eta guraize batzuen funtzioa beteko du. Hau da, makina horiek guraizeen antzeko pintza batzuk izaten dituzte, eta horretaz baliatzen dira lana era txukun batean egiteko.

Izan ere, lehenik frontoiaren burnizko esturktura zatika botako du makinak, eta ondoren funtzio bera beteko duen beste pintza batzuk jarriko zaizkie, artean zutik geratuko den hor-

migoizko esturktura eraisteko. Botatze lan horiek harrotu dezaketzen hautsa dela eta, sare handi bat jarriko dute herritarrei ahalik eta traba gutxien sortzeko. Baina aipatu lanak egin aurretik, prestaketa batzuk egin behar dituzte, bertan ariko diren langileen segurtasuna bermatzeko. Frontoiko instalazio elektrikoak, esaterako, lekuz aldatzen ari dira, esturktura botatzen dutenean inongo kaberik moztu ez dezaten, eta ezbeharrak gerta ez dadin. Bestalde, Udaletik jakinarazi dutenez, frontoi zaharraren inguruan dauden haurrentzako jolasak lekuz aldatu eta kiroldegia ondoan dagoen zelaian kokatuko dituzte, haurrek jolaslekurik gabe geratu ez daitezten.

Lanen lehen fasea amaitzen denean, indusketari ekingo diote. Obren arduradunak HITZARI adierazitakoaren arabera, lehen zatia datorren astearen bukaerarako amaituta egotea espero dute, eta behin guztia prest dutenean hasiko dira hondeaketa lanekin.

## Beste berrikuntza bat

Ikaztegieta bizitzen ari den berrikuntza prozesuaren beste pauso bat bezala hartu daiteke frontoi zaharraren eraisketa. Azken urteetan Udalak egingadako berrikuntza eta aldaketek itxura modernoagoa eman diote herriari. Bestela, ikusi besterik ez dago zenbat etxebizitza berri egin diren Ikaztegiatan denbora gutxian.

Gauzak horrela, azken urteetan, berrikuntzen alorrean, eskualdean gehien aldatu diren herrien zerrendan sartu behar dugu Ikaztegieta. Izan ere, erakuntzaren sektorea albo batera utzita, beste hainbat azpiegitura ere landu dira epe laburrean. Esandakoaren adibide dira trenbidearen gainetik igarotzeko zubia, duela urtebete eta erdi eraikia, eta herria zeharkatzen duen errepidean egin ziren aldaketak. Beraz, eskualdeak garapen bidean urratsak ematen jarraitzen duela erakutsi du, beste behin.

## BEDAIO ▶

### Jaien lehen eguna izango da gaur Bedaion

Lau egunez luzatuko dira aurten jaiak eta askotariko ekintzak antolatu dituzte

J. GOIKOETXEA

Bailarako herrietako jaiak ez dute etenik. Abuztua amaitzearekin batera, askorentzat festa garaia ere amaitu egiten da, baina hori ez da horrela. Bestela, galde diezaizela bedaioarrei, gaurtik aurrera ospatuko baitituzte jaiak bertan.

11:00etan izango den meza nagusiaren ondoren jaurtikotik duten suziriak emango die aurtengo festei hasiera ofiziala. Ondoren Artubi elkartearen hamaitetako izango da bertaratzeko diren guztientzat, Elena eta Mirariren trikiti doinuez alaiturik. Arratsalde partean berriz, pilota partidak izango dira ikusgai. Bertan, Beloki amezketarrak Elurbe lizartzarren aurka neurtuko ditu indarrak. Lehen egunari amaiera emateko, Elustondo anai-arrebek alaituko dute gaua.

Hurrengo egunetarako ere hainbat eta hainbat ekintza antolatu dituzte Bedaion. Esaterako, larunbatean herri afaria izango da, eta igandean Bedaioko Ingurutxoan dantzatuko dute.

## Txirindulari igoera

Festetako beste ekintza garrantzitsuenetarikoa bat urtero egiten den txirindulari igoera da. Aurten hamaseigarren edizioa izango da, eta Baliarraingoarekin batera, bailaran egiten den festetako igoera herriko bakarra da Bedaiokoa.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
50.000  
etxetara

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

## ELDUAIN-LIZARTZA ▶

## Jaien azken eguna izango dute gaur bi herrietan

Helduen Eguna ospatuko dute Lizartzan eta Andra Mari Eguna Elduainen

## I. TERRADILLOS

Gaur emango diete Elduainen eta Lizartzan jaietako amaiera. Elduainen Andra Mari Eguna ospatuko dute; 12:30ean, Meza Nagusia; 14:00etan, herri bazkaria Kontzejun musikaz alaiturik; 18:30ean, Aiako harpaularien erakustaldia; 19:30ean, Gorriti eta bere animaliak; 20:00etan, 36. Toka Txapelketa; 24:00etan, Laiotzen emanaldia.

Lizartzan, berriz, Helduen Eguna ospatuko dute; 10:00etan, goiz deia gaiteroekin; 12:00etan poteoa eta hamaketakoa; eta 14:30ean bazkaria txiste kontalariarekin.

## TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))  
Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarralde. Osasun etxea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.
  - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
  - ▶ San Esteban: 006800
  - ▶ Gernikako arbola: 006900
  - ▶ Amaroško dispen.: 672637
  - ▶ Asunzion Klinikak 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ DYA: 672536
  - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
  - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

**Besterik.**

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurreremendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

## AIZKORA ▶

## Mujika eta Otaegi Hirugarren mailako finalera sailkatu dira

Ibarrak eman zuen ezustekorik handiena, bigarren postuan sailkatuz; urrian Agurainen izango da finala

## IÑIGO TERRADILLOS

Pasa den igandean, hilaren 4an, izan ziren Euskal Herriko Hirugarren Mailako Aizkolari Txapelketako lehen kanporaketak, eta eskualdeko aizkolariak, Jexux Mari Mujika ibartarrak eta Joseba Otaegi zizurkildarrak, lan bikaina egin zuten, finalera sailkatu baitziren.

Guztira, bederatzi aizkolari aritu ziren lanean nor baino nor Arabako Angostina herrian izan zen kanporaketan: Jose Mari Esnaola, Jose Felix Zubizarreta, Joseba Otaegi, David Amillano, Jesus Mari Mujika, Santiago Olano, Jesus Mari Lasa, Juan Telletxea eta Iñaki Aierbe. Hauek bete beharreko lana 54ko edo kana-erdiko lau enbor ebakitzea zen, eta lan hori denbora txikienean egiten zuten lehen hiru aizkolariak sailkatuko ziren finalerako.

Horrela, hiru faboritoak Lasa, Otaegi eta Aierbe II.a baziren ere, pronostikoen aurka Jexux Mari Mujika ibartarrak eman zuen ezustea bigarren azkarrena izan baitzen bere lana amaitzen. «Udan entrenatzeko denbora gehiago izan dut eta ondo prestatuta joan nintzen kanporaketara, hori dela-eta igandean lan txukuna egin nuen, eta oso gustura nago lortutakoarekin», azaldu du ibartarrak. Haren aurretik Jexux Mari Lasa sailkatu zen, eta ondoren Joseba Otaegi. Aierbe laugarren geratu zen, finalerako txartela lortzeko helburuarekin: Ramiro Llanos,

Carlos Ruiz de Aretxabaleta, Jose Mari Teietxea, Arkaitz Iriarte, Jon Rekondo leitzarra, Jon Telletxea, Sergio Mandazen, Esteban Pikabea eta Eneko Larrion. Aizkolari bakoitzak launa enbor kana-erdiko moztu beharko ditu hemen ere, eta lehen hirurak sailkatuko dira finalerako. Multzo honetako faborito nagusiak Iriarte eta Rekondo dira. Lehenengoa Hirugarren Mailako txapela jantzi-tako aizkolaria da, eta, aurtien ere, hori lortzeko faborito nagusien artean dago.

## Finala urrian

Lehen kanporaketako hiru lehenak eta bigarreneko lehen hirurek, sei aizkolari beraz, hartuko dute parte final handian. Hain zuzen ere, urriaren 7an edo 9an izango da, Agurainen (Araba).

## IBARRA ▶

## Literatur lehiaketaren sariak banatu dituzte

San Bartolome egunean izan zen ekitaldia; 114 lan aurkeztu ziren

## ERREDAKZIOA

Pasa den abuztuaren 24an, San Bartolome egunean, Emeterio Arrese Literatur Lehiaketaren sariak banatu zituzten. Lehen Derrigorrezko Hezkuntzako eta Bigarren Derrigorrezko Hezkuntzako Ibarroko ikasleek 114 lan aurkeztu zituzten guztira, 54 poesian eta 60 prosan.

Irabazleak ondorengoak izan ziren: 1. mailan olerkietan Ainhoa Hernandez Juantorrrena, *Udaberria* lanarekin; eta prosan Haizea Urrestarazu Basualdo, *Prinzesaren abenturarekin*; 2. mailan, olerkietan, Maialen Gonzalez Aiaustui, *Gaua* lanarekin; aipamena Kepa Muxika Urtzelai, *Amona maitiarekin* eta Izar Agirresarobe Pineda, *Moxala*-rekin; eta ipuinetan, Maialen Gonzalez Aiaustui, *Gaur bete ditut hamabi urterekin*. 3. mailan, olerkietan, Ainara Otamendi Elizalde, *Itsu naiz* lanarekin; eta prosan Maria Aguirre Burdain, *Irudimen askea* lanarekin.

## IBARRA ▶

## Fernandez eta Martinez, laugarren mundialean

## ERREDAKZIOA

Xabi Fernandez eta Iker Martinez laugarren sailkatu dira 49er motako mundialean. Moskuko Pirogovskoe lekuan jokatu zen azken estropadan sei postu aurreratu zituzten sekulako lana egin ostean. Azken sailkapena horrela geratu zen: 1. Rodion Lucka eta George Leonchuk, 104 punturekin, 2. Chris Draper eta Simon Hiscoks (117), 3. Pietro Sibello eta Gianfranco Sibello (140), 4. Xabi Fernandez eta Iker Martinez (146) eta 5. Stephen Morrien eta Ben Rhodes (146).

## IBARRA ▶ KULTURA



## Lastur-era irteera egingo dute hilaren 24an

I. Terradillos ▶ Garagardo Azokan egindako lana eskertuz, Lastur-era egun pasa antolatuko dute antolatuzaileek. Irailaren 24an izango da; 09:30ean atarako dira autobusez Ibarroko Kultur Etxearen paretik, Zarautzen hamaiketako egingo dute herriko taldeen eskutik, eta eguerdian kalejira Getarian trikitilariak alaituta. Lasturren bazka-

rian bilduko dira eta ondoren zezenak izango dituzte. Iluntzean itzuliko da autobusa Ibarrara. Herriar gutziek har dezakete parte irteera honetan, eta txartelak Zubiaurre, Atari, Sendi Ekintza, Danon Txokoa eta Denak tabernetan eskuratu ahal izango dira, 23 euroren truke, hilaren 13a baino lehen. HITZA

## LEITZA ▶ KIROLAK

JAIONE ASTIBIA

U da pasatuxe da. Oporrak ere bukatu dira gehienontzat. Egunak mozten doazen heinean, ohiko egiteko-etara itzultzen gara: lana, ikasketak... eta aisialdiari ere bestelako ukitua ematen diogu. Horretan, besteak beste, kirolzaleek ere badute aukerarik. Bat, futbolarena. Izan ere, tenore honetantsu hasten baitira maila desberdinetako liga gehienak. Honen harira, Leitzaldean ere aurrerantzeko asteburuetan izanen da kirol honekin gozatzeko aukerarik: Nafarroako Lurraldeko Lehen Mailako Liga igande honetan bertan hasiko denez. Aurrera futbol taldeak bere jardunari ekinen baitio.

Ekin ere, Aurrera futbol taldeak eraberrituta ekinen dio 2005-2006 denboraldiari, jokalar berri batzuk hasiko direlako ez ezik, zuzendaritza ere oso-osoan berria izanen duelako. Esan bezala, jokalarien plantilan badira aurpegi berriak: Dani Alvarez eta Hegoi Bengoetxea, hurrenez-hurren, bata defentsa eta bestea erdilaria, dira taldeko kide berriak. Esan daiteke beste taldeetara joan diren Iker Bengoetxea eta Mikel Barberiak betetzen zituzten lekuan ariko direla bi futbolari berri hauek. Gainerakoak iazko denboraldiko jokalaririk dira. Guztira, 26 jokalar berriak, nor baino nor gogotsuago eta «gutxienez iazko denboraldia bezain ona egiteko asmoz» daudenak.

Aurtengoan badute, gainera, gogoia bizteko beste eragingarri garrantzitsua: taldeko zuzendaritzaren ardura euren gain hartu baitute jokalariek.

## Ardura berriak

Aurreko zuzendaritzak ardura horri uzteko nahia agertuta, «jokalariek geroan artean hitz egin eta erronka horri guk gero ekiteko apustu egitea erabaki genuen», argitu dio HITZARI, hain zuzen ere, Aurrera futbol taldea gobernatzeko ardura hartu duen lan-taldeko kide Unai Olanok. «Sei lagun ari gara, bost jokalar eta lehen gure 2. prestatzailea zena, Josu, orain lehendakari modura ariko dena». Josu Zestau berak zehaztu duenez, «Aurrera futbol taldeko lehendakari eta zuzendaritza elkarteak berak izanen dira. Baina futbol taldeko eguneroko lanetan-eta lan taldea ariko gara, denon artean eramanen dugu erantzukizuna», adierazi du.

Edozein moduz, «erronka polita da, guretzat berria, eta guztiok ere gogo eta ilusio handia dugu lanerako. Oso giro



Iazko ligako azken partiduko irudiak dira, Baztanen aurka jokatu zutenekoak. JAIONE ASTIBIA

# Aurrera futbol taldea, erabat berrituta, lanean aurrera

## Igande honetan hasten da Nafarroako Lurraldeko Lehen mailako liga: Arkixkilen dute estreinekoa

ona dago talde osoan eta horrek berak taldea aurrera ateratzeko ere indarra ematen du», zioten biek hala biek.

Eta bide horretan, taldeak «herrikoen alde apustua» egin du erabat: «Jokalariek gain, zuzendaritza ere geroan gain doa eta bide horretan, entrenatzaileak ere bertakoak izatea nahi genuen. Eta lortu dugu. Kostata baina azkenean baiezkoa esan zuten», diote, Irujo eta Arrizurieta, taldeko lehen eta bigarren entrenatzailea aipatzerakoan. «Biak futbol mundu hau ongi ezagutzen dutenak dira, jarraitzaileak eta maila hauen nondik-norakoak ongi ezagutzen dituztenak, bai jokalar modura eta Arri-k, baita gure entrenatzaile modura ere. Eskarmentua dutenak dira», dio Olanok; «gainera, egungo taldea oso ongi ezagutzen dute biek. Hori oso garrantzitsua da: badakite zertan sartzen diren. Hemen jendeak bere lana du, bere ikasketak, eta futbola afizioa da. Eta taldeak iaz jokatuz zuten bezala jokatzea, bereak eta gehiago emanda, ongi, meritugarria da. Eta bai bata zein besteak, badute taldeko martxaren berri: herriko jendea ongi ezagutzen dute eta taldekoak zer esanik ez. Taldean oso giro ona dago», nabarmendu du, berriz, Zestauek.

Ikusten da, beraz, ilusioz beterik daudela guztiak ere. Eta bide horretan, aurtengo xedeetako bat, garrantzitsuenetakoa beren hitzetan, «Arkixkil futbol zelaira jende gehiago erakartzea» dute, aipatu dutenez.

## Bazkide berriak

Horrela, Aurrera taldeko bazkide kopurua emendatu nahi dute. Oraingoz herriko komertzio eta lantokien laguntzaz gain, 70 bat banako bazkide omen ditu taldeak. Baina bazkide berriak egiteko pausoak ematen hasiak dira dagoeneko. «Bazkideek urteko kuota ordaindu eta denboraldi guztiko sarrerak ordainduta dituzte, etxeko 26 partiduak», argitu dute. Gainera, aipatu dutenez, kuota hauek «zertxobait merkatu ditugu, eta adin tarteen ariora: 16 urtetik beherakoentzat 20 eurokoa da; gorakoentzat, 40 eurokoa; eta Aurrera elkarteak kideentzat, 30 eurokoa», zehaztu dute. Hortaz, bazkide egin nahi duen guztiak nahikoa omen du «izen-abizenak eta bankuko zenbakia», Aurrera futbol taldeko edozeini heleraztea, edota bestela, «etxeko partidueta, Arkixkilen bertan» egin omen daiteke, «partidua ikusten den bitartean», bide batez.

Horren harira, bazkide-kopurua gehituz, ziurtatu nahi omen dute, etxeko partidueta ikusle gehiago joatea. «Diru-sarrerara modura iturri garrantzitsua ez denik ezin esan daiteke», diotenez, baina batez ere partidueta ikusleak joatea omen da garrantzitsua: «Herriko 20 gazte baino gehiago ilusioz ari gara lanean, jokatzen, negu osoan zehar, hala, dugun guztia emanez eta jendeak beren lana jarraitzen duela ikustea eta nabaritzea oso beharrezkoa da», nabarmendu dute: «Ikuskizun polita izaten da gainera, zuzenean, hor bertan jokaldiak ikustea eta zelalari gertatzen denaz gozatzela. Leitzako jendea Arkixkilerara joateko eskatzen diogu».

Eta hara, igande honetan bertan, oraindik zehazteko dagoen orduan, izanen da horretarako aukera: Aibares taldearen aurka emanen dio hasiera ligari Aurrerak, etxean jokatuz. Talde hau ez omen dute ezagutzen, aurreko denboraldian beste taldean egokitu zienta. Baina «lanari ekiteko gogo gaude», diote behin eta berri, «eta aurtengo helburua eta nahia, igotzea da: aurtun bai. Ia ongi hasten garen», diote, biek.

Denboraldi honetan aipatzea da Aurrerak, aurrekoan ez

## TALDEA ▶

## ZUZENDARITZA

**Lehendakari.** Karlos Agirre.

**Lan taldea.** Josu Zestau (lehendakari lanetan), Unai Olan, Eneko Andueza, Jon Arangoa, Mikel Azpirotz eta Iñaki Zabalo.

## PRESTATZAILEAK

**Lehen entrenatzailea.** Angel Irujo.

**Bigarren entrenatzailea.** Jose Luis Arrizurieta, Arri.

## JOKALARIAK

**Atezainak.** Antton Abruza,

Ibai Elizalde, Josu Urkiola.

**Defentsak.** Iker Aizagirre, Unai Olan, Unai Sagastibeltza, Iñaki Zabalo, Mikel Azpirotz, Fran Urkiola, Iban Urriaga, Iñigo de Karlos, Joseba Sagastibeltza, Garikoitz Etxegarai, Dani Alvarez.

**Erdilariak.** Jabi Urriaga, Eneko Andueza, Eneko Barberia, Joxean Jimenez, Iñaki Antolin, Joanes Zeballos, Harkaitz Bengoetxea, Hegoi Bengoetxea.

**Aurrelariak.** Jon Arangoa, Igor Bengoetxea, Antton Gomez, Eneko Gorostiaga.

## IV.TALDEKO GAINERAKOAK

**Aibares.** Aibarrekua.

**Alsasua.** Altsasukoa.

**Aoiz.** Agoitzekoa.

**Aralar Mendi.** Uharte Arakilekoa.

**Bazan.** Elizondokoa.

**Beti Casedano.** Kasedakoa.

**Beti Kozkor.** Lekunberrikoa.

**Beti Onak.** Atarrabiakoa.

**Gazte Berriak.** Antsoingoa.

**Illumberri.** Irunberrikoa.

**San Kristobal.** Berriozarkoa.

**San Ignazio.** Iruñekoa.

bezala, 4. multzoan jokatuko duela, Erribera eta Agoitz aldeko taldeekin batera. Arlo horren inguruan, Zestauek berak zehaztu nahi izan duenez, «talde gogor samarra egokitu zaigu», izan ere bertan daude Baztan, iazkoan buruz-buru Aurrerarekin ligako aurreko posturako burrukuta zena; Agoitz bera, igoera fasean, etxeko taldea kanporatu zena; eta San Kristobal eta Irunberri, goragoko mailatik jaitsi direnak. Batzuk igoera lortzeko eginahalez, eta besteek galdutako maila berreskuratzeko intentsioz, «hortzak erakutsiko dituzten taldeak dira. Baina guk ere lehia horretan gureak emanen ditugu. Ziur», baieztatu dute erabat baikor eta animoz beterik.

Hala bedi! Eta igandean, Arkixkileran!

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko irailaren 8a, osteguna ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Anoeta.** *Etetik eros ezazu* mintegia, KZgunean. 17:00etatik 19:00etara.  
**Belauntza.** Etzi Arabako Labastida herriko Remelluri Bodegetara irteera antolatuta dute. 20 euroren truke, bodega ezagutzeko aukera izango da, bertako ardoa dastatuz eta baita bazkalduz ere. Gaur da izena emateko azken eguna.  
**Ibarra.** Izaskun izena dutenen arteko bazkaria, hilaren 18an. Izena eman nahi duenak Izaskungo Izaskun jatetxera edo 943 67 59 27 telefono zenbakira deitu behar du (goizez), hilaren 15a baino lehen.  
**Lizartza.** Hilaren 16an Pirritx eta Porrotxen ikuskizuna antolatuta du Galtzaundi Euskara Taldeak. Sarrerak salgai, 5 euroren truke, egoitza eta Udalean.  
**Tolosa.** Iturritza jubilatuta elkarteak irteera antolatuta du San Migelera hilaren 29an. Izen-ematea, elkartearen.

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** Meritxe Etxeberriaren margolanak. Hilaren bukaera arte, Jubilatuen tabernan.  
**Tolosa.** Txaro Medranoren erakusketa. Hilaren amaiera arte, Lanbroa tabernan.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15  
**Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

**IRRATIA**

**Txolarre (107.5, 101.2 FM)**  
11:00. *Tolosaldeko Ahotsa* magazinaren hasiera (14:00ak arte): Joxe Landarekin eguraldia, albisteak, HITZaren gaurko alea, eskualdeko oharrak...  
11:30. Marimi Ugalde Irurako alkateari elkarrizketa, Iruera herri aberatsen zerrendan agertu dela eta.  
12:00. Alkizako Ollategitik herri aldizkariaren inguruko solasaldia, Pello Joxe Aranbururekin.  
12:15. Agenda.  
12:30. DJ Bull irurarrari elkarrizketa.  
13:00. *Izkutuko koloreak* irrati nobela.  
13:15. Lehiaketa eta disko eskainien tartea.  
19:00-21:00. *Tolosaldeko Ahotsa* saioaren errepikapena.  
22:00-23:00. *Street Noise* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Oporretako lehenengoak

**HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶** Veneziako (Italia) eta Nafarroa Behereko irudiokin hasi dugu lehiaketa; animatu eta bidali zuk ere zeurea!

‘O SOLE MIO’ ▶

Iker Pagola Jauregi (Ibarra).

Italia aldean igaro dituzte opor egunak Ikerrek eta bere lagunek. Veneziako irudi hauxe aukeratu du lehiaketarako, eta *O sole mio* jarri dio izenburu. Hona hemen ibartar eta tolosar koadrilak bitzakoa:

«Denetik nahasten da Veneziako kaleetan, kultura ezberdinak, Babel Dorrean adina hizkuntza arraro...Baina, behar bada, bereziarena arteak, naturak eta tradizioak duten fusioa da. Hiru ezaugarri horiek dira nagusi argazkian: kanaleko uretan gondola famatua, eta haiek inguratuz egundoko arkitekturak».



ERROZATE INGURUAN ▶

Julen Larruskain (Asteasu).

Euskal Herriko txokotaz gozatzeko parada hartu du Julen Larruskain asteasuarrak bere opor egunetan. Naturako edertasuna islatu nahi izan du argazki honetan. «Nafarroa Beherean hartutako irudia da hauxe, Errozate mendiaren inguruetan, hain zuzen ere», azaldu digu.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**

Leire Zubeldia Suso eta Lide Bengoetxea Zubeldia (Lizartza). Leirek gaur 13 urte eta Lidek abuztuaren 25ean 5 urte. Zorionak etheko guztien partetik.

**HITZA, zorion agurren**  
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, **tartea** ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:  
HITZAren egoitzara: Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa - LEITZA  
**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!**